



ENPRESEN konfiantza

2018KO 4. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2018KO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2018ko laugarren hiruhilekorako** dituzten aurreikuspenen berri izateko. Ondorio interesgarriak eman ditu, eta beherakada txiki bat sumatu da aurreko hiruhilekotik. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu

Ingurune ekonomikoari buruzko enpresen aurreikuspenei dagokienez, % 61ek uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 18,5ek hobetu egingo dela. Bistakoa denez, ikuspegi baikorra da nagusi, eta, geroago ikusiko dugunez, islatzen da aztertutako gainerako aldagai guztietan ere.




1 FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak aldekoak dira, **2018ko laugarren hiruhilekoari** begira. Hala, % 52,5en iritziz, fakturazioan ez da aldaketarik egongo, eta % 33,5en ustez, hobera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresak % 14,1 dira.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta **2018ko laugarren hiruhilekoan** espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 63,1ek uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 22,8k hobera egingo duela. Laginaren % 14,1ek baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek zer espero dute, gehiago saltzea ala garestiago saltzea? Emaitzek diote eskabideen bolumena hobetzeko aurreikuspen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 57,8k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 28,5ek hobera egingo duela. Enpresen % 13,7k baizik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, ordea, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestagileen %75,3k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **laugarren hiruhilekoan**. Gainerako enpresetatik, % 10,3k uste du prezioak handiagoak izango direla eta % 14,4k txikiagoak izango direla.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunari buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 68,8ren arabera ez da aldaketarik egongo; enpresen % 12,9k uste du handiagoa izango dela eta % 18,3k errendimendu txikiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 68,1ek uste du eutsi egingo diotela **2018ko laugarren hiruhilekoan**. % 19k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 12,9ak uste du behera egingo duela.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 73k erantzun du enpleguan ez duela aldaketarik espero; % 16,7k langile-taldea handitzeko itxaropena du eta % 10,3k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2018KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **54,2ko** konfiantza-indizea lortzen dugu. Horrek esan nahi du aurreko hiruhilekoko datuarekin alderatuta beherakada bat egon dela, orduko hartan 56,6ko balioa lortu baitzen. Interpretazioa hauxe da: enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2018ko laugarren hiruhilekoari** begira. Alabaina, indizearen balioa 50etik gora dagoenez, hedatze-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin koherentzian. Espainian, esaterako, 53ko datua lortu zen abuztuan, eta Eurogunean 54,2koa.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 63,2k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 17,6k hobera egin duela. % 19,1en iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G -KO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 74,8 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 8,3k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOBRAZTEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78,3rentzat, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 13,8ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 7,9k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 72,4k erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 16,5ek dio hobetu egin dela, eta % 11k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2018AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 2 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
